

2014-11-13AN LAKUAN IZANDAKO BILERAREN INGURUKO INFORMAZIO AURRERAPENA

Penagarria izan zen bilera: sailaren zikoizkeria guztiak mahairatu ziren, **bereziki auzitegi medikuen ingurukoak**. Jakinaenez, bileretan gertatzen direnak xehe-xehe kontatzea gustatzen zaio LABi, hortaz datozen egunetan izango duzue gure informazio orria. Honako hau premiazko bi gairen inguruko aurrerapena baino ez da:

• 6. HILABETETIK GORAKO GAIXOALDIA

Azkenik argi hitz egin dute: ez dute berriro deskonturik egingo eta zio honengatik kendutako diru-kopuruak itzuliko dizkiote berriaz eskatzen duen orori.

Banakako eskabidea izango da. Horretarako idazki xumea aski izango da, ez baitute exijitzen ez datarik ez diru kopururik; LEIagatik deskontuak itzultzea, besterik ez. Baten batek arazorik balu, LABen laguntzeko prest gaude.

Ia hiru urtez, bai kolore batekoak zein besteko gobernua sindikatu gisa ezagutu ditugun bidegabekeria handienetako bat nahita egin dute. Barrabaskeria haren kontra ez bilerek, ez akatsgabeko argudioek ez zuten balio izan. Epai baten batek ere ez dio atzera eragin Eusko Jaurlaritzari. Seguruenera, arrazoia emango zion beste auzi baten zain zegoen.

Hori heldu bitartean, kaltetutako langile baten bitartez, jakin zuen Arartekok administrazioak zuen jokabidea. LABen sinestuta gaude Arartekon aurkeztutako salaketa erabakigarria izan dela sekula urratu behar izan ez zituzten eskubide batzuk itzultzeko.

2015 - DERRIGORREZKO HE

Helburua da 2015ean lanpostu horiek hizkuntza eskakizuna duten langileek betetzea. Horretarako ondokoak pentsatu dituzte:

- LPZ aldatzea gaur egun hizkuntza eskakizuna ez duten behin behineko langilek zein titularrek betetzen dituzten 2015eko derrigortasunadun plazak direla-eta. Horiek horrela, betekizun hori duten langilei esleituko dizkiote plazak, lehendabizi behin-behineko langileei eta geroago titularrei;
- Ikastea erraztea. Kidego gisa dagokion hizkuntza eskakizuna 3 izanik, bigarrena badutenei eskainiko diete liberazioa titularrari eta 2 orduko ikastaroa behin-behinekoari.
- 45 urtetik goragokoentzat ezarrita dagoen salbuespena ez erabiltzea. Horrek esan nahi du 2015erako derrigortasuna duten plazak hizkuntza eskakizuna ez dutenek ez betetzea.

Horiek guztiak abian, datorren urtean berriazko lehiaketa aterako dute 2015eko urtarrilean derrigortasuna duten plazak hornitze aldera.

• ABENDUAREN 24 ETA 31, EGOTE GUARDIAKO 8.GARREN EGUNA

LABek berehalako erantzuna exijitu zion zuzendaritzari. Kontua beste behin aztertuko zutela esan arren langileak lanera joatearen aldekoagoak ziren, aintzat hartu gabe egun horiek ez direla izango egun arruntak bezalakoak.

Gaur EIZUn behin betiko erabakia argitaratzea agindu zuten.

Gure helbideak eta telefonoak

- Bilbo. Buenos Aires, 6, 5. solairua. 944016525 / lab.b@aju.ej-gv.es
- Donostia. Kalkutako Teresa, 1-sotoa. 943004361 / lab.gi@aju.ej-gv.es
- Gasteiz. Gasteiz hiribidea, 18-4.a. 945004919 / junta-lab@aju.ej-gv.es

<http://justizia.labsindikatua.org/>